

*2018ko abendua*

Lea-Artibai eskualdean enpresa berriak sortzea da Azaro Fundazioaren egiteko nagusienetako bat. Ekintzaileei, ideia-aren definiziotik abiatuz, bideragarritasun plana egiten laguntzen diete, eta enpresa sortzea erabakitzen dutenen kasuan, enpresa sorrera prozesuan, diru-laguntzen azterketan eta baita hauen eskarian ere.

Urtero legez Bizkaiko Foru Aldundiak langabezia egonik enpresa sortzen dutenentzako kaleratutako diru-laguntza kudeatu dute Azaro Fundazioa eta Leartibai Garapen Agentziak elkarlanean. Aurten guztira 102.000€ lortu dira eskualdeko 19 ekintzaileentzat. Ekintzaile heuen enpresa proiektuak tipologia desberdinetakoak dira: ileapaindegiak, tabernak, komunikazioarekin zerikusia duten proiektuak, turismo alorrekoak, tailerrak, frutategiak...

Ekintzaile hauek enpresa proiektua martxan jarri berri dutela kontuan harturik, diru-laguntza hau oso garrantzitsua dela adierazi dute enpresa proiektuei bultzada emateko. Etapa berri honi ekiteko gogotsu eta pozik azaldu dira.